

Talde lokalen kolektiboa "Jende gehiagok parte hartzea nahiko genuke"

ERMUKO TALDE LOKALEN KOLEKTIBOAK URTEETAN EGINDAKO LANARI ESKER, SANTIXAUETAN VALDESPINAREN MARKESAREN PARKEAN ANTOLATZEN DITUZTEN KONTZERTUAK ERREFERENTE BIHURTZEA LORTU DUTE.

DROGETENITTURRI, MARIO, OSKAR ETA ALBERTOREKIN IZAN ZEN KOLEKTIBORI BURUZ ETA AURTENGO KONTZERTUEI BURUZ HITZ EGITEKO.



- Zenbat kidek eta taldek osatzen duzue Musika Talde lokalen kolektiboa?

Ez gara jende asko elkar-tzen, 5-6 lagun normalean. "Storbais"-eko Txino (orain Madrilen dagoena lanean), "Sin"-eko Alberto eta Moi, "LPC"-ko Oskar, "Eskarmiento"-ko Mario eta Enano eta "Barra Libre"-ko Alberto. Ermuan musika talde mordoa

dago eta horretan hasten ari den jende gazte asko. Kolektiboan jende gehiagok parte hartzea nahiko genuke.

-Zaila egiten zaizue beraz jende gehiago kolektibora erakartzea?

Ez dakigu interes faltagatik ez duten parte hartzen edo ez direlako enteratzen. Normalean larunbat edo igande arratsaldetan elkartzen gara arra-

tsaldeko 3rak 4rak bitartean Kontraste tabernan eta astean zehar telefonoz edo e-postaz komunikatzen gara. Kolektiboan gauden gehienok lana egiten dugu eta zaila izaten da lana eta taldeak tartekatzea.

-Duela zenbat urte hasi ziren Valdespina Markeseko kontzertuak egiten?

Ezin dugu zehatz-mehatz esan baina 15 urte baino gehiago badira kontzertuak bertan egiten direla.

-Zergatik kontzertuak parke horretan?

Alde batetik Ermuan zeuden eta dauden musika taldeak ezagutera emateko eta aldi berean, jai egitarauan ez zegoen musika mota sustatu eta eskaintzeko asmoz.

-Zein musika eta talde mota ikus eta entzun daitezke kontzertu horietan?

Denetarik: Heavy, hard-core, punk-rock, black-metal, rock melodikoa, punk, perkusioa... Urte hauetan guztietan estilo anitzeko taldeak pasa dira eta gehiago ere ekarri nahi ditugu.

-Zenbat kontzertu izaten dira Santixauetan?

Hiru egunetan izaten dira kontzertuak (24, 25 eta 26eko gauetan). Normalean 3 taldek jotzen dute egunean.

-Beraz, kolektiboan zaudetenok antolatzen duzue dena?

Bai, bilerak egin, taldeak proposatu, taldeei deitu, ekipoa alokatu... Hala ere, nor-

bait interesatuta egongo balitz gurekin bat egiteko, jar dadila harremanetan, Alberto (679880586) edo Oskarrek (626115752).

-Zeintzuk dira taldeak auzeratzeko irizpideak?

Daukagu aurrekontura egokitu behar dira. Bestalde, taldeek duten prestutasuna eta kolektiboko jendearen gus-tuen arabera proposatzen dira taldeak, gero botazioa eginez aukeratzen ditugu. Euskal Herriko, zein estatuko hainbat lekutako taldeak etorri dira. Behin, hemendik zebilen eta gure gonbitea onartu zuen talde mexikar bat ere egon zen. Taldeak urte batetik bestera ezberdinak izan daitezke saiatzen gara.

-Urtean zehar beste ekitaldi-zen bat egiten duzue ezta?

Bai, Gabonetako edo Uda-berriko jardunaldiak. Bi egu-neko kontzertuak izaten dira Valdespina Markesaren par-kean eta orduan ere, 2 edo 3 talde ekartzen ditugu egun ba-koitzerako.


-Aurtengo Santixauetarako zer prestatu duzue?

Hilaren 24an, Luchando Para Cambiar (LPC), Criatura (Madril) eta Silver egongo dira. Uztailearen 25ean, Bruyha (Galizia), Puagh (Valladolid) eta Chorlitos Head taldeek jo-ko dute eta hilaren 26an, Bri-gada Criminal (Lazkao) eta Sugusen (Madril) kontzertua izango da.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 71